




EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

### **TXAPELKETA AUTONOMIKOEI BURUZKO KOMUNIKATU OFIZIALA**

Euskadiko Futbol Federakundeko Zuzendaritzak maiatzaren 11an egindako batzar telematikoan zenbait erabaki hartu ditu. Bi irizpide hartu ditu aintzat erabakiak hartzeko: batetik, Espainiako Futbol Federazioko batzorde delegatuak estatuko txapelketak amaitzeko hartutako irizpideak. Eta bestetik, 2020ko maiatzaren 7an Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak 2019-2020 eta 2020-2021 denboraldietarako euskal kirol-federazioen lehiaketa ofizialak antolatzeko eta funtzio publikoa bermatzeko administrazio kontu-harteari buruzko ebazpena. Honako hauek dira erabaki nagusiak:

1. Txapelketa autonomiko guztiak amaituzat ematea martxoaren 14tik aurrera. Ministroen kontseiluak alarma egoera ezarri zuenetik, hain zuzen ere.
2. Euskal liga guztien behin betiko sailkapena jokaturako azken jardunaldian zegoena izango da. Sailkapen horietan dauden berdinketetan talde irabazlea zein den erabakitzeko Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko 101. artikulua hartuko da kontuan.
3. Ez da jaitzierarik egongo eta, halaber, denboraldi honetarako euskal liga bakoitzarentzako txapelketa arauetan ezarritako igoerak gauzatu egingo dira.
  - Lurraldeetako bigarren sailkatuen igoera faseak lehiatzea ezinezkoa izango denez, euskal ligetara igotzeko koefizienteen irizpidea erabiliko da. Hau da, jokaturako partiden artean eta lortutako puntuen arteko zatiketa.
  - Euskal ligan parte hartzeko eskubidea duen talderen batek uko eginez gero, bere lekua hartuko duena aukeratzeko kirol irizpide hoberenak erabiliko dira.
  - Espainiako Futbol Federazioak autonomi mailatik estatu mailarako igoera kopurua gehituz gero, zuzendaritza batzordeak lurralde mailatik autonomi mailara igotzeko erabilitako irizpide bera har dezake kontuan.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Federazioei eskatuko zaie beraien eskumena diren lurralde gorengo txapelketetako behin betiko sailkapenak jakinarazteko. Ezarritako igoerak zeintzuk diren zehazteko helburuarekin.
5. 2020-2021 denboraldiko eta behar izanez gero hurrengo urteetako autonomi txapelketen lehiaketa egitasmoa aztertzea eta garatzea adostu da. Horretarako, Espainiako Futbol Federazioak estatu mailako txapelketetarako ezarritako irizpideak eta hurrengo denboraldiko datak hartuko dira kontuan.
6. 2020-2021 denboraldirako lehiaketa egitasmoa Batzar Nagusiak onartu beharko du.
7. Espainiako Futbol Federazioak Euskadiko Futbol Federakundearen esku utzitako estatu mailako txapelketetak, aipatutako erakundeak maila eta talde bakoitzari buruz zehazten duenaren arabera arautuko dira.

Erabaki hauek hartu dira Espainiako Futbol Federazioak maiatzaren 8an hartutako erabakien ondotik, eta beti ere Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren 37.6 artikulua kontuan hartuta. Dekretu horren arabera "Euskadiko Futbol Federakundeak eta lurraldeetako federazioak euren funtzioak koordinatu behar dituzte kirol lehiaketen piramide egitura bermatze aldera".

Bestalde, Euskadiko Futbol Federazioak estatu eta autonomi mailetako euskal talde gehienen iritzia jaso du erabakiak hartu aurretik, konfinamenduaren ondorioz deitutako batzar telematikoetan.

Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak federazioaren webgunean publikatuko dira. Bestalde, hurrengo Batzar Nagusian behar diren argibideak emango ditu.



Bilbon, 2020ko Maiatzak 11an



ALICA

Kepa Allica Bilbao  
Idazkari Nagusia